

Noticias e informaciones de interés

MERECIDO DESCANSO DEL MPEH DESPUÉS DE UN INTENSO CURSO DE MOVILIZACIONES

El próximo lunes día 29, será el último, antes del descanso veraniego, en el que la práctica totalidad de los pueblos donde se llevan a cabo las concentraciones habituales de los lunes impulsadas por el MPEH, dejen de hacerlo. La vuelta generalizada a las concentraciones y movilizaciones será a partir del 7 de septiembre.

Se trata de un merecido descanso después de un intenso curso de trabajo y movilizaciones. Hemos estado en la calle concentrándonos todos los lunes de un modo prácticamente ininterrumpido en las cuatro capitales y en unas 80 localidades de Hego Euskal Herria. Y a esas concentraciones hemos sumado múltiples movilizaciones a nivel de pueblo, comarcal, provincial y de Hego Euskal Herria.

Nuestras prioridades reivindicativas han estado situadas en la defensa de las pensiones públicas, en especial del complemento a las pensiones mínimas hasta equipararlas al SMI, así como en la de una sanidad pública y de cuidados universal y gratuita. Y esto es así porque somos personas pensionistas y con cierta edad para quienes esas reivindicaciones son básicas para poder vivir con un mínimo de dignidad.

Aun así, como movimiento solidario hemos apoyado y participado en otras iniciativas sociales importantes, como la huelga general del 17 de marzo en defensa de un salario mínimo propio de 1.500 euros para la CAV y Nafarroa, o las movilizaciones por la paz y contra las guerras, en especial la denuncia del genocidio de Israel contra Gaza y el pueblo palestino.

Ha sido un curso intenso de trabajo y movilización, costoso sí, pero al que hemos sabido hacer frente

con ilusión y orgullo, y fuente de reconocimiento social para un sector significativo de quienes pelean y luchan en Euskal Herria.

Ahora nos toca un periodo de descanso –aunque en más de una localidad aprovechando las fiestas populares el movimiento de pensionistas se hará presente en la calle, como con la manifestación del 24 de agosto, lunes de la Aste Nagusia de Bilbao– necesario para volver con más fuerzas en septiembre, más aún ante un panorama bastante complicado ante el que nos vamos a tener que enfrentar.

Estamos inmersos en un contexto internacional del que no escapamos Europa y Euskal Herria, con guerras, políticas armamentísticas en muchos países, crecimiento de las fuerzas conservadoras y de



extrema derecha, que van a traer consigo –ya lo están haciendo– recortes en los sistemas públicos de pensiones, de sanidad, educación, ataques a los derechos democráticos, etc. Vamos a tener que prepararnos para defender, y si es posible mejorar, los derechos adquiridos. No tenemos la menor duda de que el MPEH sabremos estar a la altura de las circunstancias.



El rincón de Tasio

ACCESIBILIDAD LÍNEA C3, ¡YA!

Alcaldes/as y concejales/as del corredor de la línea C3 de Cercanías que une Orduña con Bilbao reclamaron el 15 de junio un servicio moderno, seguro, accesible y digno. Lo hicieron en una comparecencia celebrada en la estación de tren de Laudio en la que anunciaron una dinámica institucional y social para reclamar mejoras en este servicio.

En sus intervenciones se pudieron escuchar frases como: “La situación de la línea C3 de Renfe es insostenible y necesita mejoras urgentes”, de la alcaldesa de Laudio, Mainer Gastaka, o, “es urgente garantizar trenes puntuales y fiables, recuperar el servicio Gau Jaia y ampliarlo a todos los fines de semana, garantizar la accesibilidad universal en todas las estaciones y trenes”, de la alcaldesa de Arrigorriaga, “porque un transporte público digno no es un lujo, sino un derecho de la ciudadanía”.

Y, mientras tanto, el Ararteko, ante una queja de una persona con movilidad reducida, por su imposibilidad de acceder a los trenes de esa línea, responde saliéndose por la tangente, dejando de lado la evidente inaccesibilidad de esos trenes, que era el motivo de la queja, y

centrándose en un proyecto piloto de recrecimiento parcial de andenes, que personas que trabajan en los trenes de la línea califican como “una forma de ganar tiempo”, o, directamente “tirar dinero a la basura”. Eso sí, ese proyecto es la posible solución que aportan desde la Consejería de Movilidad Sostenible, presionada por las movilizaciones de la Plataforma “Accesibilidad línea C3, ¡YA!, apoyada por el movimiento de pensionistas de Aiaraldea y Bizkaia.



Por otro lado, la consejera sigue sin contestar a las peticiones de reunión de la Plataforma, aunque en sus medios afines no falta la propaganda acerca de la participación ciudadana....

UNA LLAMADA AL GOBIERNO FORAL EN DEFENSA DEL SISTEMA PÚBLICO DE SALUD DE NAVARRA.

El viernes 19 de la semana pasada se desarrolló en Pamplona/Iruñea una manifestación

ciudadana convocada por la Plataforma Navarra de Salud/Nafarroako Osasun Plataforma (PNS/NOP) con

asistencia de entre 400 y 500 personas, gran parte de ellas trabajadoras y trabajadores del sistema público de salud navarro. La convocatoria se realizó en defensa de la mejora del Servicio Navarro de Salud-Osasunbidea frente a las estrategias y políticas en marcha a favor de su deterioro y privatización.

La PNS/NOP surgió en respuesta a los recortes presupuestarios en salud establecidos por el



Gobierno de UPN durante la crisis financiera 2008-2012, estando formada por diversas organizaciones sociales, sindicatos de clase y personas individuales.

Durante la marcha se reclamó el aumento presupuestario para el Departamento de Salud, el fortalecimiento de la Atención Primaria, la reducción de las listas de espera con recursos propios y no con derivaciones de pruebas y tratamientos a la sanidad

privada ni con horas extra (peonadas), el establecimiento de la dedicación exclusiva en el ejercicio de la profesión médica, la derivación del gasto militar para servicios y gastos sociales, la salud como derecho y no como negocio, etc.

En el llamamiento a la manifestación se reclamó asimismo la equidad asistencial urbano-rural, la coordinación de la atención sociosanitaria a prestar con recursos públicos, la ampliación y mejora de la atención a la salud mental, a la salud laboral de toda la población trabajadora y la investigación pública cuyos resultados reviertan en el propio sistema de salud.

La manifestación concluyó en la plaza del Ayuntamiento en la que se leyó un comunicado en el que se destacaba también la necesidad de que la futura Ley Foral de Salud, cuyo proyecto está en discusión, blinde el sistema público, garantice los derechos de la ciudadanía y la equidad asistencial, comprometa las políticas públicas con la mejora de las condiciones de vida y trabajo de los sectores poblacionales más vulnerables, al objeto de reducir las desigualdades en salud actuales y asegure una participación social real en el sistema público de salud. Contenidos éstos cuya plasmación en la nueva Ley de Salud van a requerir de la movilización de la sociedad civil navarra.

CONCENTRACIÓN DE DENUNCIA EN ZALDIBAR POR LA FALTA DE MÉDICOS/AS

El lunes día 22, convocada por el movimiento de pensionistas de Zaldibar, se llevó a cabo una concentración ante el centro de salud de la localidad en la que participaron 90 personas. Denunciaron la falta de médicos/as de atención primaria y pediatría. Además, se encuentran con la perspectiva de no contar con ninguna asistencia médica a partir del mes de julio.

Tal como se denunció en la manifestación comarcal celebrada tres días antes –el viernes 19– en Durango, el problema de falta de médicas/os en Zaldibar no es un caso aislado, sino que se repite en varios pueblos de la comarca de



Durangaldea, generándose un amplio descontento social.

MÓDULO PSICOSOCIAL DE DEUSTU-SAN INAZIO: EJEMPLO DE UNA GENERACIÓN DE LUCHA

El Módulo Psicosocial de Deusto-San Inazio nació en el 83 impulsado por el movimiento vecinal y el movimiento feminista, junto con algunos profesionales de la salud que tenían claro lo fundamental del modelo comunitario. Aglutinó en un único espacio la atención a jóvenes afectados por la entrada masiva de la heroína y sus familias de quien nadie se estaba haciendo cargo, y el acceso a derechos en salud sexual y salud reproductiva y acompañamiento en situaciones de conflicto y violencia en el ámbito de la familia, cuando nadie hablaba todavía ni de violencia de género, ni de violencias machistas.

El pasado 23 de abril se presentaba en el Centro Municipal de Bidarte, un video documental titulado el Módulo de Sani y dirigido por Marta Elezkano y David Martínez. En el vídeo se escucha el testimonio de una de las fundadoras del Módulo, una trabajadora desde los inicios y una persona que fue atendida por varios motivos. La sala el día de la presentación del vídeo fue un encuentro muy emocionante entre personas que habían sido vecinas de la zona y habían participado en la creación del Módulo, además de en otras múltiples movilizaciones por mejoras en los barrios, otras usuarias en distintos momentos del Módulo, movimiento feminista, personas pertenecientes a sindicatos y otros colectivos, algunos representantes políticos del Ayuntamiento de Bilbao (ninguno de PNV o PSE que son los que gobiernan) y vecinos y vecinas del distrito.

En el coloquio posterior al vídeo surgieron varios temas: por un lado, reivindicar la historia de los

barrios de Bilbao, en este caso San Inazio, y su capacidad de movilización como parte importante de la historia de Bilbao. A la vez, las personas que estuvieron en la creación del Módulo invitaron a movilizarse junto con el barrio y a exigir al Ayuntamiento que se siente a negociar con el objetivo de que el recurso comunitario para los barrios del Distrito 1 no desaparezca.

El Ayuntamiento de Bilbao ha impuesto un recorte del 65% del presupuesto del Módulo de cara a 2027 diciendo que se tiene que hacer cargo Salud de Gobierno Vasco, pero éste, hasta el momento, no ha comunicado nada al respecto. En conclusión, ese recorte del Ayuntamiento traerá consigo el cierre del Módulo, el despido de las trabajadoras y un desprecio a las personas a las que presta atención; así como para los barrios para los que el recurso Módulo es un lugar donde atender a sus vecinas y vecinos con más dificultades.

El día de la presentación del vídeo señalaron que “somos herederas de la capacidad y el entusiasmo por la movilización y conseguir objetivos a través de ella de quienes ahora se movilizan todos los lunes para exigir pensiones dignas”. Con ese impulso continúan llevando su reivindicación tanto al pleno municipal, como al consejo de Distrito y movilizado a medios de comunicación que se han hecho eco de la grave situación en la que les están poniendo las instituciones.

Tienen muy presente que el año que viene son elecciones municipales y forales y pretenden llevar adelante una campaña con recogida de firmas,

concentraciones, reuniones con colectivos, quejas sistemáticas a la web de sugerencias, convocatoria de asamblea con los representantes políticos... para exigir a las instituciones que no dejen tiradas a las personas de los barrios que más lo necesitan y que reconozcan la labor de auzolan y organización de una generación que también es parte de la historia de Bilbao y una riqueza para la ciudad.



LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA ANUNCIA SU INTENCIÓN DE DESGRAVAR A LAS PERSONAS CON SEGUROS MÉDICOS PRIVADOS

El 12 de junio, a bombo y platillo, la Diputación Foral de Bizkaia anunció su intención de impulsar una serie de medidas fiscales, regresivas y discriminatorias, entre ellas la de desgravar a las personas con seguros médicos privados, que puede alcanzar deducciones de hasta 300 euros anuales en el IRPF.

Estas medidas antes de ser aplicadas deben ser aprobadas en las Juntas Generales de Bizkaia, pero a pesar de la pequeña polvareda que se ha levantado entre el PNV y el PSE, que forman el ejecutivo foral, lo más probable es que, quizás con algunos matices menores, salgan adelante pues ambos partidos cuentan con la mayoría en las Juntas Generales.

privados, reduciéndose así los ingresos públicos, mientras la sanidad pública sigue necesitando más personal, más medios y más inversión. Esta medida profundiza una tendencia ya existente. Actualmente, una de cada tres personas en Bizkaia dispone de un seguro médico privado. Lejos de corregir esta dinámica, la Diputación Foral de Bizkaia ayuda a consolidarla desviando recursos públicos para favorecer el crecimiento de la sanidad privada, impulsando una sanidad a dos velocidades: una más rápida para quienes pueden pagarla y otra cada vez más debilitada para el resto de la ciudadanía.

El riesgo es claro: acabar con una sanidad pública cada vez más espíritu residual para las personas con

menos recursos y un negocio sanitario privado cada vez más fuerte, respaldado además con dinero público. Para denunciar esta medida fiscal y evitar ese riesgo, ayer viernes, día 26, a las 12:30, se llevó a cabo una concentración de protesta de 120 personas ante la Diputación Foral de Bizkaia (Gran Vía) convocada por OPA Herri Plataformak, con el



Resulta difícil justificar que se premie con desgravaciones fiscales a quienes contratan seguros

eslogan de “ni un euro para potenciar los seguros privados” y que contó con el apoyo del movimiento pensionista.

DESCANSO TAMBIÉN DE ESTE BOLETÍN DE NOTICIAS

Habida cuenta del periodo veraniego en que entramos, en el que la actividad del MPEH va a quedar prácticamente en suspenso, no tiene justificación mantener semanalmente este Boletín de Noticias, que se nutre sobre todo de los trabajos y actividades del MPEH. Aun así, si en los meses de junio y agosto, se destacan algunas noticias e informaciones de cierto interés, con carácter extraordinario lo publicaremos y lo haremos llegar a todos nuestros lectores y lectoras. Eso sí, el sábado 5 de septiembre estaremos de nuevo en la calle, posibilitando información a las personas lectoras que nos siguen, en especial a todos y todas las compañeras pensionistas que estarán de nuevo el lunes día 7 en las plazas de los pueblos con el ánimo fortalecido para reiniciar las protestas y movilizaciones en defensa de unas pensiones y condiciones de vida dignas para todas las personas mayores.

Albiste eta informazio interesgarriak

IKASTURTE TRINKO BATEN ONDOREN ONDO IRABAZITAKO EHPM-REN ATSEDENALDIA

Datorren astelehena, hilak 29, izango da udako Oporraldiari bide emateko azken kontzentrazio eguna. Esandako moduan, astelehenero EHPMk bultzatuta biltzen diren herri ia gehienetan azken kontzentrazioa egingo dute udako atsedenaldiaren aurretik. Kontzentrazioak eta mobilizazioak irailaren 7tik aurrera itzuliko dira.

Ikasturtean zehar egindako lan eta mobilizazio-aldi sendo baten ondoren, merezitako atsedena da. Kaleran izan gara astelehenetan ia etenik gabe kontzentrazioak eginez Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan eta beste 80 bat herritan. Eta ohiko elkarretaratze horiei herri, eskualde, probintzia eta Hego Euskal Herriko mobilizazio ugari gehitu behar zaizkie.

Gure eskakizunetan lehenetasuna izan dute pentsio publikoaren sistemaren defentsak, eta bereziki gutxieneko pentsioek LGSrekin parekatzeko eman beharreko osagarrien eskakizunak, halaber, saiatu gara osasun publikoaren eta zainketa unibertsal eta doakoaren alde egin diren bilera eta mobilizazioetan parte hartzen. Eta erreibindikazio hauen alde burubelari egiten dugu,

hain zuzen ere, pentsiodunak garelako eta adinean aurrera goazenez duintasun minimo batekin bizi ahal izateko oinarritzko baldintzak direlako.

Hala ere, mugimendu solidarioa izanik, beste ekimen sozial garrantzitsu batzuk ere babestu eta beraietan parte hartu dugu, hala nola, EAerako eta Nafarroarako 1.500 euroko gutxieneko soldataren defentsan martxoaren 17an egin zen greba orokorrean, edo bakearen aldeko eta gerren aurkako mobilizazioetan, bereziki Israelek Gazaren eta herri palestinarren aurka egindako genozidioaren salaketetan.

Ikasturtean zehar lan eta mobilizazio trinkoa garatu dugu, zaila dudarik gabe, baina ilusioz eta harrotasunez aurre egiten jakin izan diogu, eta, horixe da, zalantzarik gabe, Euskal Herrian borrokan diharduten sektore esanguratsuenentzako gure errekonozimendu soziala irabazteko iturria.

Orain atsedenaldia dagokigu – nahiz eta herri bat baino gehiagotan, tokiko jaiak aprobetxatuz, pentsiodunen mugimendua kalean agertuko den, Bilboko Aste Nagusiko abuztuaren 24ko (astelehena) manifestazioarekin bezala – Oporraldi hau beharrezkoa da irailean indar handiagoz itzultzeko kaleetara, batez ere aurrean dugun panorama zail samar honi aurre egin beharko diogula kontuan hartzen badugu.



Europa eta Euskal Herria barne dauden nazioarteko testuinguru batean murgilduta gaude: gerrak, armamentu-politikak herrialde askotan, indar kontserbadoreen eta eskuin muturrekoen hazkundera, eta hauek, sistema sozial publikoetan eragin negatiboa izango dute pentsioetan, osasunean, hezkuntzan, eskubide demokratikoetan eta abarretan. Argi dago, eskuratutako eskubideak defendatzeko, eta, ahal bada, hobetzeko borrokarako prestatu beharko gara. Zalantzarik gabe, EHPM egoerak eskatzen duen mailan egongo da.



Tasioren txokoa

C3 LINEAREN IRISGARRITASUNA, BEREHALA!

Urduña eta Bilbo lotzen dituen C3 aldiriko lineako herrietako alkate eta zinegotziek zerbitzu moderno, seguru, irisgarri eta duina eskatu zuten ekainaren 15ean. Laudioko tren-geltokian egindako agerraldian eman zuten horren berri, eta zerbitzu horretan hobekuntzak eskatzeko dinamika instituzional eta soziala iragarri zuten.

Beraien agerraldietan honelako esaldiak entzun ziren: "Renferen C3 linearen egoera jasanezina da eta premiazko hobekuntzak behar ditu", Maider Gastaka Laudioko alkatearena, edo "premiazkoa da orduak errespetatuko dituzten trenak eta fidagarriak bermatzea, Gau Jaia zerbitzua berreskuratzea eta asteburu guztietara zabaltzea, geltoki eta tren guztietan irisgarritasun unibertsala bermatzea", Arrigorriagako alkatearena, "garraio publiko duina ez baita luxua, herritarren eskubidea baizik".

Eta, bitartean, Arartekoak, mugikortasun urriko pertsona baten kexa baten aurrean, linea horretako trenetara sartzeko ezintasunagatik, fundamenturik gabeko erantzuna ematen du, alde batera uzten du tren horien irisgarritasun eza, kexaren arrazoa zena, eta nasak partzialki handitzeko proiektu pilotu batean zentratzen da; gai honen inguruan linea horretako trenetan lan egiten duten pertsonak "denbora irabazteko modua dela" diote edo, zuzenean, "dirua alperrik gastatzea dela" adierazten dute. Hori bai, proiektu hori da Mugikortasun Iraunkorreko Saitetik eman dezaketen irtenbidea, Aiaraldeko eta Bizkaiko pentsiodunen mugimenduak babestutako "C3 lineako irisgarritasuna, BEREHALA!" plataformaren mobilizazioek presionatuta.

Bestalde, sailburuak oraindik ez die erantzun Plataformaren bilera-eskaerei, nahiz eta bere hurbileko hedabideetan ez den falta herritarren parte-hartzeri buruzko propaganda...

Mugikortasun urriko pertsonentzako **IRISGARRITASUNA**

ACCESIBILIDAD

para personas con movilidad reducida



KONTZENTRAZIOA

Maiatzak 25 de mayo a las 12:00etan
Plaza Circular de **BILBO**ko Plaza Biribilean

PLATAFORMA DE PERSONAS CON MOVILIDAD REDUCIDA
MOVIMIENTO DE PENSIONISTAS DE BIZKAIA y AIARALDEA

OSASUN SISTEMA PUBLIKOAREN DEFENTSARAKO DEIA NAFARROAKO GOBERNUARI

Joan den asteko ostiralean, hilak 19, Nafarroako Osasun Plataformak (PNS/NOP) deituta manifestazio bat egin zen Iruñean, eta 400-500 pertsona inguru bertaratu ziren, gehienak Nafarroako osasun-sistema publikoko langileak. Deialdia Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren hobekuntzaren alde egin zen, zerbitzu hori hondatu eta pribatizatu nahian abiatu duten estrategia eta politiken kontra. PNS/NOP 2008-2012 finantza-krisian UPNren Gobernuak osasungintzan ezarritako aurrekontu-murrizketei erantzuteko sortu zen, eta hainbat gizarte-erakundek, klase-sindikatuak eta norbanakoek osatzen dute plataforma.

Manifestazioan, besteak beste, honako hauek eskatu ziren: Osasun Sailerako aurrekontua handitzea, Lehen Mailako Arreta indartzea, itxaron-zerrendak murriztea baliabide propioekin, eta ez osasun pribaturako proba eta tratamenduen deribazioekin, ezta aparteko orduekin ere (peonadak), lanaldi esklusiboa ezartzea lanbide medikoan aritzeko, gastu militarra eten eta gizarte-zerbitzuetara bideratzea dirua, eta osasuna eskubide gisa onartzea, eta ez negozio gisa, etab.

Manifestaziorako deialdian honako hauek ere eskatu ziren: hiri- eta landa-eremuko asistentzia zerbitzuak parekatzea, baliabide publikoekin eman beharreko arreta soziosanitarioa koordinatzea, osasun menta-

lari, langile guztien lan-osasunari eta osasun-sistemari egiten diren ikerketak ematen dituzten emaitzak sistema publikoan bertan berrerabiltzeko arreta areagotzea eta hobetzea.

Manifestazioa Udaletxeko plazan amaitu eta komunikatua irakurri zen bertan, zeinek, idazten dabilzan Osasun Foru Legeak – proiektua eztabaidatzen ari dira – sistema publikoa blindatzeko, herritarren eskubideak eta asistentzia-ekitatea bermatzeko, politika publikoak biztanleriaren sektore ahulenen bizitza eta lan-baldintzen hobekuntzarekin konprometi-



tzeko beharra nabarmentzen zuen, gaur egungo osasun-arloko desberdintasunak murrizteko eta osasun-sistema publikoan benetako parte-hartze soziala bermatzea eskatuz. Eduki horiek Osasunaren Lege berrian gauatzeko, Nafarroako gizarte zibila mobilizatu beharko dela esan zuten.

KONTZENTRAZIOA ZALDIBARREN MEDIKU FALTAGATIK

Astlehenean, hilak 22, Zaldibarko pentsiodunen mugimenduak deituta, elkarretaratzea egin zen herriko osasun-zentroaren aurrean, eta 90 pertsonak parte hartu zuten. Lehen mailako arretako eta pediatriako medikuen falta salatu zuten. Gainera, uztailetik aurrera, uste dute, ez dutela inolako zerbitzu medikorik izango.

Hiru egun lehenago –hilaren 19an, ostirala– Durangon



egindako eskualdeko manifestazioan salatu zen bezala, Zaldibarko mediku faltaren arazoa ez da kasu isolatu bat, baizik eta Durangaldeko hainbat herritan errepikatzen dena, eta honek eskualdean ezinegon handia sortu du.

DEUSTU-SAN INAZIOKO MODULU PSIKOSOZIALA: BORROKA-BELAUNALDI BATEN ADIBIDEA

Deustu-San Inazioko modulu psikosoziala 83an sortu zen, auzo-mugimenduak eta mugimendu feministak bultzatuta, eta eredu komunitarioa funtsezkoa zela argi zuten osasun-arloko profesional batzuekin elkarlanean. Espazio bakar batean bildu zituen heroinaren sarrera masiboak kaltetutako gazteak eta haien familiei zuzendutako arreta-gunea (inor ez zen haien kargu egiten ari), eta sexu-osasuneko eta ugalketa-osasuneko eskubideen jabetzeaz eta laguntza emateaz, eta familia eremuko gatazka-eta indarkeria-egoeretan auzotarrak artatzen zituzten, sasoi hartan inork oraindik ez zuenean hitz egiten ez genero-indarkeriaz, ez indarkeria matxistari buruz.

Joan den apirilaren 23an, Marta Elezkanok eta David Martinezek zuzendutako Sani modulua izeneko bi-



deo dokumentala aurkeztu zen Bidarteko Udal Zentroan. Bideoan, moduluen sortzailetako baten testigantza entzuten da: bertako langilea izandakoa, eta hainbat arrazoiengatik artatu zuten beste pertsona batena.

Bideoa aurkeztu zen egunean, egoera zirrargarria sortu zen etorri zirenak auzoko eta inguruko bizilagunak izan zirelako, moduluen sorreran parte hartu zuten batzuk euren artean. Horrez gain, auzoen hobekuntzarako borroketan parte hartu zutenak ere han egon ziren. Moduluan artatuak izan diren beste erabiltzaile batzuek, mugimendu feministako kideek, sindikatuetakoa eta beste kolektibo batzuetako hiritarrek, Bilboko Udaleko ordezkari politiko batzuek (EAJko edo PSEko ordezkari bakar bat ere ez, nahiz

eta udal gobernuan daudenak izan) eta barrutiko bizilagunek ere bertaratu ziren.

Bideoaren ondorengo solasaldian hainbat gai sortu ziren: alde batetik, Bilboko auzoen historia aldarrikatu behar zela, kasu honetan San Inaziokoa, eta mobilizatorako izan duten grina Bilboko historiaren zati garrantzitsu gisa gorde behar dela. Era berean, moduluen sorreran egon ziren pertsonak auzokideekin batera mobilizatzeko deia egiten zuten, 1. Barrutiko auzoetako baliabide komunitarioak desagertu ez daitezzen Udalarari exijitzeko.

Bilboko Udalak moduluen aurrekontuaren %65eko murrizketa ezarri du 2027rako, Eusko Jaurlaritzak Osasunaren ardura bere gain hartu behar duela esanez, baina Eusko Jaurlaritzak orain arte ez du ezer

esan gai honetaz. Laburbilduz, Udalaren murrizketa horrek Modulua ixtea, langileak kale-ratzea eta arreta eskaintzen dien pertsonak mespretxatzea ekarriko du, bai eta zailtasun gehien dituzten Bilboko auzokideei Moduluen sistema ezabatzeko arrakala handiagoa sortuko du hiritarrengan.

Bideoaren aurkezpenaren egunean adierazi zuten, "pentsio duinak eskatzeko astelehenero

mobilizatzen direnen oinordekoak gara". Indar horrekin jarraitzen dute udal osoko bilkurara gaia eramanen, eta baita Barrutiko kontseilura eta aintzat hartu dituzten hedabideekin lanean erakundeek Moduloak egoera larrian jarri dituztela salatzen.

Oso gogoan dute datorren urtean udal eta foru hauteskundeak izango direla, eta kanpaina bat aurrera eraman nahi dute, sinadurak bilduz, kontzentrazioak eginez, kolektiboekin bilerak eginez, iradokizunen webgunean kexa sistematikoak aurkeztuz, eta ordezkari politikoekin ere bilduko dira... beharizan handienak dituzten auzokideak bazterrean utz ez ditzaten, eta Bilboko historiaren parte eta hiriari aberastasuna ekarri dioten belaunaldi horretako auzolan eta antolaketa aitortu dezaten.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK IRAGARRI DU ASEGURU MEDIKO PRIBATUAK DESGRABATZEKO AUKERA IZANGO DUTELA

Ekainaren 12an, Bizkaiko Foru Aldundiak indar handiz iragarri zuen zenbait neurri fiskal atzerakoi eta diskriminatzaile bultzatzeko asmoa duela, besteak beste, aseguru mediko pribatuak dituztenen kuotagatik desgrabatzea, urtean 300 eurorainoko kenkariak izan daitezkeelarik PFEZn aitortpean.

Neurri horiek aplikatu aurretik Bizkaiko Batzar Nagusietan onartu behar dira, baina foru gobernua osatzen duten EAJren eta PSEren artean hautsak harrotu diren arren, litekeena da, ñabardura-ñabardura, aurrrera ateratzea, bi alderdiek gehiengoa baitute Batzar Nagusietan.

Zaila da aseguru pribatuak kontratatzeagatik PFEZ arintzea justifikatuko duen argudio politikoak aurkitzea; zeren diru-sarrera publikoa murriztu egiten baita, osasungintza publikoak langile gehiago behar duenean, baliabide gehiago eta inbertsio handiagoa. Neurri horrek lehendik datorren jokabidea sakondu besterik ez du egingen. Gaur egun, Bizkaiko hiru biztanletik batek aseguru mediko pribatua dauka. Dinamika hori aldatzen ahalgindu beharrean, Bizkaiko Foru Aldundia sakontzen saiatzen da, osasun pribatuaren hazkundera erraz-

teko baliabide publikoak erabiliz, bi abiadurako osasungintza bultzatuz: azkarragoa ordaindu dezaketentzat, eta gero eta ahulagoa gainerako herritarrentzat.

Arriskua argia da: baliabide gutxiago duten herritarrentzako osasun sistema publikoa kaltetzen jarraitzea, eta gero eta osasungintzako negozio pribatu handiagoei laguntzea, denona den diru publikoa erabiliz. Neurri fiskal hori salatzeko eta arrisku hori saihesteko, atzo, ostirala, hilak 26, 12:30ean, 120 pertsonen elkarretaratze bat egin zen Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean (Kale Nagusia), OPA Herri Plata-



formak deituta, "Euro bakar bat ere ez aseguru pribatuak indartzeko" leloarekin, pentsiodunen mugimenduaren babesarekin.

ALBISTE-BULETIN HONEK ERE ATSEDENALDIA HARTUKO DU

Udaldian sartzen garelako kontuan hartuta, eta EHPMren jarduerak ia etenda geratuko denez, etenaldi bat egitea erabaki da, eta Albisteen Buletin hau ez da argitaratuko irailaren 5era arte. Bitartean, albiste urgenteren bat suertatuko balitz, argitalpen berezia egingo genuke gure irakurle guztiek ondo informatuta egon daitezten. Beraz, esandako moduan, irailaren 5ean elkar elikatuko garenez, gogoratu, irailaren 7an herrietako plazetan elkar ikusiko dugula pentsiodun guztiok, indarberrituta, adineko lagun guztientzako pentsio eta bizi-baldintza duinen aldeko protestei eta mobilizazioei berriro ekiteko prest.